

BERRIKUNTZAK HARRSIRA EGINGO DEN BISITAN



Azaroan, Harategien kantoiko sarreran dagoen dorrearen oinarria sendotzeko lanak, Vitoria-Gasteizko Udalak kontratatuak, amaitu ziren. Lan horiek burutu dira aurtengo martxoan izandako luiziak inguruan eragindako kalteak konpontzeko. Dorrearen hormaren beheko aldean egin den errefortzu horrekin batera, foku berriak jarri dira harresiaren zati horretako argiztapena hobetzearren.

Berrikuntza horien ondoren, berriro harresia bisitatzeko aukera irekiko da, katedrala ezagutzeko bisita gidatuen programaren barruan, [Katedrala eta Harresia ezagutzeko bisitan](#) edo [Errealitate Birtualaren eta Harresiaren Esperientzian](#) parte hartuz.

Lehen aukeran, Katedrala ezagutzeko bisitaren barruko ibilbideaz gain (barruan jatorrizko harresiaren aztarnak daude), XI. mendean Gasteizko herrixka inguratu zuen lehen harresiaren eraikuntza-ezaugarriak jorratzen dira. Gainera, lorategi botaniko ikusgarria ezagutu daiteke.

Bigarren aukeran, berriz, Errealitate Birtualeko gailu autonomoak eta tenpluaren historiaren eta hiriko harresiaren bisita gidatua lotzen dira. VR teknologiari esker, ingurune murgiltzaile bat sortzen da; hau da, bisitatzeko gaituztenak une ezberdinetan (IX. mendetik XVI. mendera) eta kokapen ezberdinetan kokatzen ditu (Gasteizko herrixkako lehen txabolak, Santa Maria plazan induskatutako bizitegi-eraikinaren bilakaera edo iparraldean hirira sartzeko atearen kokapen desberdinak). Era berean, errealitate birtualak aukera ematen du dorrearen kapitelen goialdera igotzeko eta hiriaren panoramikaz gozatzeko.

Horrez gain, katedralako kriptetara eta hiriko harresira bisita gidatua egiten da, kokapen horiei esker hiriaren eta katedralaren jatorriak hobeto ezagutu baitaitezke.

Fundazioak
turismo-arloko
ATRAETHON!
Jardunaldian parte
hartu du



Europa Biltzar Jauregian egin zen azaroaren 12an Euskadiko sektore turistikoaren urteko jardunaldia, **ATRAETHON!**, eta bertan izan zen Santa Maria Katedrala Fundazioko talde bat.

Euskadiko Bidaia Agentzia Hartzailen Elkartek (ATRAE) antolatutako topaketan, hacktaton bat egin zen sinergiak eta iraunkortasunaren berrikuntza sustatzeko nahiz turismo-arloan jardunbide egokiak bultzatzeko, aurkezpen eta dinamika interaktiboan bitartez. Era horretan, jolas eta lan giroan, Fundazioko kideek jardunaldi horretan parte hartu zuten hainbat turismo-eragilerekin batera, aurkeztutako erronka ezberdinak ebazten.

Harrizko maila berriak dorrean

"Ezagutzaren ibilbidearen egokitzapena. 1. Zatia: egokitzapen-lanak" proiektuaren barruko zaharberitze lanen barnean, tenpluaren ipar-mendebaldean aurkitzen den eskailera kiribila amaitzen ari gara une honetan.

Eskailera hori asko erabiltzen da gure bisitetan, eta korura, iparraldeko erronda-pasabidera eta arkupeko gangen gaineko forjatura joan daiteke bertatik. Egungo lanei esker, azken sarbide hori hobetuko da, eta zazpi maila helikoidal gehituko dira, kareharrizkoak, gaur egungoen antzekoak baina ez berdinak.

Argazkian ikus daiteke lehen zeuden mailen eta orain jarri ditugun arteko aldea. Lehengoak estrados kopatua zuten, eta eskaileren goiko alde osoari jarraipena ematen zioten; oraingoak, berriz, ertz biziko estradosak dituzte, berria eta zaharra bereizteko aukera ematen dutenak.



Denboraren markak Santa Maria Plazako zoladuran

2015ean Santa Maria plaza zaharberitu zenean, plazako zenbait gunetan zoladura desberdin bat jarri zen. Marka horiek leku horretan igarotako denbora ulertzen eta gogoratzen laguntzen dute.

Argazkian ikus daitekeen moduan, 3 elementu bereiz ditzakegu. Beheko aldean, **zirkulu ilunago bat** ikus daiteke, eta IX. mende inguruan eraikitako eta mende askotan martxan izandako **putzu bat non dagoen** adierazten du. Putzu hori Olarizuko kareharrizko harlangaitzez indartu zen, eta erreferentziatzko elementua izan zen inguru horretako etxe-unitateentzat.

Ezkerraldean, hainbat **laukizuzen** ikusten ditugu, eta XI. **mendeko eraikin**

multifuntzional baten hormak markatzen dituzte, laneko eta etxeko jarduerak batzen zituen.

Putzuaren eta eraikinaren artean, lurrean markatuta agertzen dira XII. **mendean eraikitako eta gaur egungo Katedralaren aitzindaria izandako eliza erromanikoaren hormak**. Absidearen forma erdizirkularra medio erraz antzematen da.

Zoladurako **marka** horiei beste bat gehitu behar diegu; oraingoan **argiarena**, plazan zirkuluerdian gauetan proiektatzen dena; bertan, **Gasteizko Foruaren 1181eko laburpenak irakur daitezke**.

Zorionak eta 2025. urte berri on !!



Jesusen jaiotza eta Artzainen adorazioa, Esteban de Agredak egindako multzoa, 1814. urte inguruan. Erabilitako materialak zur polikromatua, papera eta ehun kolatuak dira.

© iphotosuar -ek utzitako argazkia



PUEDES ENCONTRARNOS EN



AbiertoPorObras



@CatedralVitoria



CatedralVitoria



Katedraldea



@catedralvitoria